

## Herririk Herri | 2

Durangon 119 etxebitza eraikitzea hitzartu dute EAJk eta PSE-EEK



## Berbaz | 10

N. Moreno: "Demostratu dugu oztopoen gainetik aurrera joateko gai izan garela"

## Kirola | 15

Garaiko triatloian ibilbide gogorrari egin beharko diote aurre parte-hartzaileek

### DURANGO | 2

# Antenen araudiak eztabaida piztu du udaleko alderdien artean

Durangaldeko telefonia antenen lehenengo ordenantza onartu du Durangoko Udalak

Antenek pertsonengan ustez eragin ahal dituzten kalteen inguruan sortu da eztabaida



Ermodo kalean dauden telefonia-antena, Durangoko erdigunean.

### KULTURA | 12

## Kriskitinen 25 urteko dantzak, musika eta kantagaz batera

Durangoko Andra Mariko elizpean eskainiko du Kriskitin dantza taldeak, bihar, 25. urteurren ospakizunetarako prestatu duten ikuskizun nagusia. Taldearen historiari errepasoa egingo dute ikuskizunak.



Z. Fuertes

### Durangaldea | 6

Hogei gazte saharauik Durangon eta Elorrión pasatuko dute uda

### Berriz | 7

Energia kontsumoa %40 gutxituko dute kaleko argietan

### Atxondo | 9

Astelehenean irekiko dute igerilekua, iraila amaitu arte

### Abadiño | 9

Zelaieta eskolan egiteko lanak urtebete atzeratu ditu Jaurilaritzak

**LOTU ZURE ETORKIZUNA!**

**IURRETA INSTITUTUA**  
Gazteentzako Lanbide, Heziketako eta Enpresaen Institutua

**MATRIKULAZIOA**  
uztailaren 5etik 11ra

Tel.: 94 466 88 00 • www.iurreta-institutua.net • idazkaritza@iurreta-institutua.net

# HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

## DURANGO

# Antenen arautegia onartu dute, denak ados egon ez arren

Telefonia-antenek pertsonengan ustez eragin ditzaketen kalteen inguruan sortu da eztabaida

**D**urangoko Udalak telefonia-antenen inguruko ordenantza onartu du. EAJk, PSE-EEK eta PPK babestu dute ordenantza. Hemendik aurrera, herrian antenak ipini gura dituzten enpresek udalaren baimen eta lizentziak beharko dituzte. Espainiako Gobernuak 2001ean egindako legea hartu dute oinarri ordenantzarako. Ingurumena eta segurtasuna aintzat hartzen dituen arren, batez ere hirigintza-ikuspegitik zehaztu dute arautegia. Eztabaida antenek pertsonengan ustez eragin ditzaketen kalteen inguruan sortu da.

EAJko Goiztidi Diazek dioenez, antenen gaiagaz ez da alarma sozialik sortu behar. Osasuneko Mundu Erakundearen azterketa bat aipatu du, esateko ez dagoela zientifikoki frogatuta antenak kaltegarriak eta minbizi-eragileak direnik. Azterketa horren arabera, fro-

**EAJko Goiztidi Diazek dioenez, antenen gaiagaz ez da alarma sozialik sortu behar**

gatuta dagoen eragin bakarra gorputzeko ehunen tenperatura igo daitekeela da.

Aralarreko Dani Maezturen ustez, antenek emititzen dituzten uhinak kaltegarriak direla gauza jakina da: "Zenbaterainoko kaltegarriak diren esateko adostasun zientifikoa falta da bakarrik". Bere arabera, ordenantzan funtsezkoa ez da egin: pertsonak jaso ahal dituen balore elektromagnetikoak neurtzea. Gogoratu du tabakoa eta amiantoa ere ez zirela lehenago kaltegarritzat hartzen.

### Udalek, eskumenik ez

Kontua da, udalek ez daukatela eskumenik balore horiek neurtu eta murrizteko. PSE-EEKo Idoia Agorriak esan du egin ahal zena egin dutela ordenantza arautzean. Antenak ikastetxeetatik hurrean ez ipintzeko, udalak enprekin negoziatzea proposatu du. Bilduko Jon Bingen Landabidearen iritziz, ordenantza, funtzionatzen dabilzan antenak onartzeko egin dela dirudi. "Zertarako egingo dugu ordenantza hau ez badaukagu eskumenik?". ■ M.Onaindia



Ermodo kalean, zikoinak daude trenbide alboko eraikinean dagoen telefonia-antenan.

## Uhinen balorea nabarmen jaitea eskatu du Aralarrek

Europako Parlamentuak 2011n onartutako idatzi batek telefono-antenen arriskuez berba egiten du: "Telefonia mugikorren uhinek, gizakiengan termikoak ez diren eragin biologikoak sortzen dituztela ematen du". Gainera, arriskua zehazki determinatu egin denean ardura-printzipioa erabili behar dela dio.

Jendea (batez ere umeak eta gazteak) arrisku posiblearen eraginpean jartzean, printzipio hori erabiltzea eskatzen du. Aralar-

**Aralarrek dio balorea 900etik 0,1era jaitsita estaldura bermatzen dela**

rrek uste du printzipio hori ez dela erabili Durangon, eta uhinen balore elektromagnetikoak jaitea eskatu du.

Zentimetro karratuko 900 mikrowatteen dago ipinita muga. Maezturen alderdiak dio balorea 0,1era jaitsita telefono-estaldura bermatzen dela. Salzburgon (Austria) neurri horrengaz funtzionatzen ei dute. Europar landutako beste txosten bat eskutan, 2011ko legea zaharkituta geratu dela eta aldatzeko beharra dagoela esan du.

## Hamar antena daude Durangoko lur eremuetan


Aktibitate-lizentzia antena bakar batek ere ez dauka, eta bik bakarrik dute baimen urbanistikoa

Durangon, gaur egun hamar telefonia-antena daude funtzionamenduan. Ermodo kalean, Ezkurdi plazan, Antso Estegiz kalean, Gasteiz Bidea kalean eta Eguzkitza auzoan daude instalatuta. 2007an Kurutzia inguruan ere ipintzea proposatu zuen enpresa batek, baina bizilagunak kezkatu eta asmoak ez zuen aurrera egin. Hain zuzen, bizilagun horien kezka eragin zuen udala gai honen inguruan eztabaidatzen hasia. 2008an ordenantza bat egiteko konpromisoa hartu zuen udalbatzak, eta handik lau urtera onartu dute arautegi hori.

Durangon dauden hamar antenetatik batek ere ez dauka aktibitate lizentziarik. Gainera, bik bakarrik daukate baimen urbanistikoa.

### ANTENAK

1. Ermodo kalea, 5: Telefónica.
2. Ezkurdi plaza, 1: Airtel.
3. Antso Estegiz Zumardia, 11: France Telecom.
4. Gasteiz Bidea, 2: Telefónica.
5. Gasteiz Bidea, 2: Vodafone
6. Gasteiz Bidea, 2: Xfera.
7. Eguzkitza, 6: Airtel.
8. Eguzkitza, 8: Xfera.
9. Eguzkitza, 8: France Telecom.
10. Eguzkitza, 8: Telefónica





**DURANGO**

# “Umeek hezkuntza ez sexista jasotzea funtsezkoa da”

Gaztehgam elkartekoa da Markel Ganboa; asteon hainbat ekitaldi eratu dituzte, atzo izan baitzen gayen, bisexualen, transexualen eta queer-en Askapen Eguna.

**Zer helburugaz eratu dituzue aste honetako ekitaldiak?**

Durangon lehenengo aldiz halako aste bat ospatzea gura genuen. Honi hasiera ematea garrantzitsua zela uste genuen. Ekainaren 28aren zergatia eta mugimenduen historia Durangon zabaltzea zen helburua.

**Gaztehgam sortu duzue Durangaldean. Kontatu hasiera zelan izan den.**

Apur bat kasualitatez izan zen. Martxoan, Durangon ospatu zen Gazte Burdela ekimena antolatzen geundela ikusi genuen elkar-teraren premia. Badaude gazte elkar-teak gai hau lantzen dutenak, baina gu horretara dedikatzen gara funtsean. Gayak, lesbiana, bisexualak eta transexualak diren gazteei elkartzeko txoko edo asanblada bat ematea gura genuen.

**Azken urteotan egoera aldatu da. Baina erasoak ez dira amaitu...**

Oraindik homofobia gizartean bertan dago. Txarrena da jende asko ez dela horretaz konturatzen. Oraindik jende asko dago mehatxatuta edo irainduta bere kondizio sexualagatik. Batzuek, beldurragatik ez dute kondizio hori onartzeko pausua ematen. Ezinezkoa eta onartezina da.

**Zein izan daiteke egoerari buelta emateko giltza?**

Oztopoak gainditzeko, matxismoa eta homofobia errotik moztu behar dira. Ezkerreko mugimenduen batura ere beharrezkoa da. Eskumatik jasotzen ditugun mehatxu edo erasoak tinko eutsi behar diegu. Askotan gertatzen da ezkerreko mugimenduetan ere heterofaxismoa dagoela, eta ez gara konturatzen. Hori ere gainditu egin behar da.

**Eta hezkuntzak zelako funtzioa izan dezake?**

Funtsezkoa. Hurrengo belaunaldiari hau ez gertatzeko, funtsezkoa da umeek hezkuntza ez sexista jasotzea. Gaur eguneko hezkuntzak ez du hori bere baitan hartzen. Hartzekotan, oso berandu: DBHko azkeneko mailetan. Umea txikitatik hezi behar da balore horiekin.

**Harro agertzeko eguna al da ekainaren 28a?**

Ez da harrotasun kontua. Ni, naitzen modukoa izateagatik nago harro. Nire bertute eta akats guztiekin. Heterosexualitatearen harrotasun eguna ere ez da ospatzen. Jendeak harrotasun egunagaz nahasten du ekainaren 28a. Baina ez da horrela. Stonewalleko (New York, AEB) matxinadaren urteurrena da. Gauza da, pertsona horien guztien oihua eta errei-bindikazioak atera behar ditugula kalera. Hori da funtsezkoa.

“Ezkerreko mugimenduen batura ere beharrezkoa da”



Markel Ganboa, Pinondon ipini duten erakusketan.

## Kirol arloko tasa gehienak igotzea kritikatu dute

Orain arteko obariak mantendu dituzte; erroldatu bakoek %30 gehiago ordaindu beharko dute

Durango Kirolak erakunde autonomoak prezio berriak ipini ditu kirol zerbitzuetan. Tasen gehien-goia %2 igotzea proposatu du, eta udalbatzak onartu du EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin. Bil-

du eta Aralar kontra agertu dira. Aldaketekin, obariak bere horretan mantendu dituzte. Erroldatu bakoek, ostera, ez dute horretarako eskubiderik edukiko. Gainera, %30 gehiago ordainduko dute.

Aralarreko Dani Maeztuk esan du hainbat gai daudela eztabaidatzeko oraindik, eta horiek landu arte ez du egoki ikusten prezioak aldatzea. “Igerileku berriek edukitako kostua eta ondorengo lanetarako inbertituko diren 400.000 euroak ezin dira ahaztu”. Bilduko Eider Uribe ardurak zehaztea eskatu du: “Erantzukizunak argitu arte ez litzateke aldatetarik egon beharko”. Uribe ez du ondo ikusten erabiltzaileei prezioak igotzea azpiegitura hori mantentzeko. ■ M.O.

## Batza plataforma birtuala irailean ipini gura dute martxan

Hornitzaileek erosketak elkarrekin egin eta aurrezteak da Batza plataforma berriaren helburua. Amankomunazgoko saltoki eta ostalaritza establezimendu guztiak biltzen ditu, +Dendak elkar-tereko bazkide ez badira ere bai.

Durangaldeko Merkatarien Elkar-terea, +Dendak elkar-terea eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak bultzatutako ekimen hori azaltzeko, hitzaldi sorta eratu dute, Kudea konpainiaz lankidetzan.

Hitzaldi bi emango dituzte saltzaile eta ostalarientzako. Ekainaren 25ean, 15:00etan, lehenengo, Durangon, +Dendak elkar-terea duen egoitzan (Plateruen Plaza, 8). Bigarrena, ekainaren 27an izango da, 14:30ean, Elorrioko Iturri kultur etxean. ■ J. G.

**lea artibai**  
ikastetxea

**Etorkizuna Eraikiz**  
formazio sustapen laneratzeko ikasleak

# prestakuntza zikloak matrikula

**2012/07/05—2012/07/12**

**GOI MAILAKOAK**

- \* Administrazioa eta finantzak
- \* Web aplikazioen garapena
- \* Telekomunikazioa eta informatika sistemak
- \* Automatizazioa eta robotika industrialak
- \* Fabrikazio mekanikoko produkzioa
- \* Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa \*\*\* Moduluka emango da arratsaldetan

**ERDI MAILAKOAK**

- \* Mantentze lan elektromekanikoa
- \* Beroa sortzeko instalazioak (beroa, ura eta gasa)

**++ Bekak eta laguntzak premia duten ikasleentzat.**

**4 Ipod Ikasle berrien artean zotz egiteko**

Xemein etorbidea, 19 48270 MARKINA-XEMEIN TF. 946169002 sgabiola@learlik.com www.learlik.com

**DURANGO**

## Truke azoka egingo dute Gaztetxean, zapatu goizetan

Durangoko Sapuetxe Gaztetxean truke azoka egiten hasi dira. Azokaren zergatia azaldu dute: "Guztia ez dela diru bidez lortu behar adierazi gura dugu". Arropa eta jostailuak dauzkate, adibidez, baina abileziak eta ezagutzak ere trukatu ahal dira. "Laguntzeko ideia guztiak pozik hartuko ditugu". Momentuz jendearen aldetik harrera ona eduki dutela diote gazteek.

### Desazkondeaz hausnartzen ibili dira, eta horren ondorioz sortu dute azoka

Hemendik aurrera zapaturu egingo dute azoka berezia, 11:00etatik 13:30era. Hilabete honetan, gazte asanbladakoak desazkondeaz hausnartzen ibili dira, eta horren ondorioz sortu dute azoka. Desazkondea joera bat da, gizakia eta naturaren arteko oreka ezartzea helburu duena. Produktio ekonomikoa era kontrolatua gutxitzeko proposamena da. ■ M.O.

## Babes ofizialeko 119 etxebizitza egin gura dituzte Faustegoienan

Hamasei etxebizitza udalaren esku geratuko dira, gazteei alokatzeko

**E**Ajk eta PSE-EEK Faustegoienan babes ofizialeko 119 etxebizitza eraikitzeko akordioa adostu dute. Horietatik 103 jabetunak izango dira. Gainerako hamaseiak udalarenak, gazteei alokairuan emateko.

### Etxebizitza eskuratzeko izena ematen dutenen artean zozketa udalak egingo du

Kooperatiba batek jardungo du sustatzaile, nahiz eta udalak etxebizitzok jabetzapean eskuratu gura dutenen erregistroa egiteko eskubidea izango duen. Etxebizitza eskuratzeko izena ematen dutenen artean zozketa ere uda-



Faustegoienan etxeak eraiki gura dituzten lursaila.

lak berak egingo duela jakitera eman dute.

### Zozketako baldintzak

Bat, bi eta hiru logelako etxebizitzaren zozketan parte hartu ahal izateko hainbat baldintza zehaztu ditu udalak: adinez nagusia izatea edo emantzipatua egotea, promozio honetarako baino ez den eskari-egileen erregistroan izena ematea, lau urte jarraian egotea

### Etxebizitzaren zozketan parte hartu ahal izateko hainbat baldintza zehaztu ditu udalak

Durangon erroldatua edo zortzi urtez etenekin, 900 eta 39.000 euro arteko diru-sarrera ponderatua izatea eta etxebizitzarik ez izatea.

Aitziber Irigoras Durangoko alkateak adierazi duenez, herri-erregioak gazteenak izan dituzte kontuan, "helduen mundurako sarbidea errazteko eta emantzipazio prozesuan laguntzeko. Nolanahi ere, beste promozio batzuetan eskaintza beste kolektibo batzuetara zabaldu daiteke".

Pilar Rios alderdi sozialistaren bozaramaleak azaldu duenez, "EAJrekin adostutako akordioaren muinean udaleko arduradunek jendearen arazoei irtenbidea aurkitzeko daukaten konbentzimendua dago". ■ J.G.

## Lokaletan ordutegia zaratari ipini gura diote, ez zarratzeari

Lokalen erreformak eta zigorrak aztertu dituzte

Gazte lokaletako kideek adostu dute lokalen erabilera arautzeko proposamena. Hiru batzar egin dituzte, eta joan zen zapatuan izan zen azkena. 40 lagunek parte hartu zuten. Urtarrilaren 31n onartu zuen udalak ordenantza, eta gazteek alegazioak aurkeztu zituzten, zorrotz zela kritikatu.

Dinamizazio taldekoek balorazio ona egin dute: "Nahiko azkar lortu zen gatazka-gune nagusiak adostea". Ordutegiak izan zituzten eztabaidagai. Udalaren arautegiak zioen lokalak itxeko ordutegi bat zehaztu behar zela. Ordutegi hori, itxeko beharrean zarata gutxiagotzeko izatea adostu dute

### Hiru batzar egin dituzte, eta zapatuan izan zen azkena; 40 lagunek parte hartu zuten

gazteek. Astegunetan 22:30ean zarratzea gura zuen udalak, eta asteburuetan 23:30ean.

Ordutegiaz gainera, beste gai batzuk ere eduki zituzten eztabaidatzeko. Hasieran udalak onartutako ordenantzak erreforma asko egitea eskatzen zuen, lokaletako gazteek azaldu dutenez. Zapatuan batzarkideek emandako iritziak zeintzuk diren azaldu dute dinamizatzaileek: zigorrak, gehienbat ekonomikoak, "kopuru aldetik absurduak eta gehiegizkoak".

### Aurkezpena, laster

Dinamizatzaileek adierazi dutenez, gazteen proposamen osoa datozen asteetan aurkeztuko dute jendaurrean. Batzarrean jasotakoak txostena garatu behar dute. Batzarrean parte hartu dutenei eta alderdi politikoei emango diete idatzitakoan. ■ M.Onaindia.

**MALLABIA**

## Konpostatzearen aldeko apustua egingo du udalak

Beste zabor sistema batzuk aztertu dituzte

Zabor bilketa eragingarriagoa lortu guran, pausu berriak emateko prest dago udala. Mallabian zaborraren %25etik behera birziklatzen da eta hori aldatu egin behar

dela azaldu du Xabat Areitioaurtena Bilduko zinegotziak: "Gaur egun organikoa, papera eta plastikoa bezalako lehengaiak nahastuta doaz zabortegietara". Azpi-



Zero Zabor taldekoen hitzaldia, joan zen egunean, Mallabian.

marratu duenez, beste zabor sistema batzuekin, atez atekoagaz esaterako, zaborraren %80tik gora birziklatu ahal da eta bide hori jarraitzea garrantzitsutzat jo du.

Gai horren inguruan egin zuten berba joan zen egunean Ainhoa Arrozpidek eta Juan Mari Irazustak, Zero Zabor taldeko kideek. Hondakinak baliabide direla azpimarratu zuten eta ez zaborra. Hondakinaren murrizketaren, berrerrabilpen eta birziklapenaren alde egin zuten.

"Mallabian materia organikoa aparte kudeatuaz gero, eta horretarako aukera ederra daukagu, zaborraren %40 konpost bihurtu dezakegu". Udalak konpostatzea bultzatu gura du, "bai herrian eta baita baserrietan ere". Debabarrenako Amankomunazioan autokonpostagailuak eskuratu daitezke. Gainera, zabor bilketa eredu aldatzeko azterketa egingo dute. ■ J.G.

**ZALDIBAR**

## Irudi koloretsua izango da liburutegiaren logo berria

Asier Mochalesek bidalitako ikurra hautatu dute

Kolore biziko orriak daukan liburu irekia aukeratu dute Zaldibar-ko udal liburutegiaren irudi berria izateko. Asier Mochales zaldibartarrak bidali zuen proposamena.

Ehun euroko saria jaso du lehiaketaren irabazleak.

Guztira, 29 irudi proposamen jaso dituzte lehiaketaren antolatzaileek. Jasotako guztie-


tatik lau aukeratu zituen liburutegiko kudeatzaileek lehenengo: herriko egileek aurkeztutako bi eta herriko kanpokoek bidalitako bi proposamen onenak. Horien artean, liburutegiaren erabiltzaileek aukeratu dute gustokoena eta hartu dute azken erabakia.

Aurrerantzean, Zaldibarko udal liburutegiak argitaratzen duen informazio guztia Asier Mochaleskegindako irudi honek lagunduta kaleratuko dute. ■ I.E.

**BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Grupo CATALANA OCCIDENTE

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77



INSTITUTO ESPECIFICO  
DE FORMACION PROFESIONAL  
SUPERIOR

**ZORNOTZA**

GOI-MAILAKO LANBIDE  
HEZIKETAKO BERARIAZKO  
INSTITUTUA

*Lanerako  
Langile  
Trebatuak*

**GOI-MAILAKO ZIKLOAK**

- Metal-Eraikuntzak.\*
- Web Aplikazioen Garapena.
- Mekatronika Industriala.

**ERDI-MAILAKO ZIKLOAK**

- Merkataritza Jarduerak.
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Mantentze-lan Elektromekanikoa.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mikroinformatika eta Sareak Sistemak.

**ESKAINITZA PARTZIALA**

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

**SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA**

- Zati komuna.\*

**ZIKLO GUZTIAK EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ**

**DATAK**

**Matrikula:** uztailaren **5**etik **11**ra

**Tel.: 94 673 02 51**

**e-mail: info@fpzornotza.com**

**www.fpzornotza.com**



DURANGALDEA

# Organikoa zelan batu aztertuko du Amankomunazgoak

Urtea amaitu aurretik eztabaida batzarrak egingo dituzte herririk herri, hiru fasetan banatuta

Zaborra zelan batu erabakitze, herritarren iritzia ezagutu gura dute, eta Amankomunazgoak prozesu bat ipini du martxan. Hiru fasetan banatu dute. Lehenengoan, Amankomunazgoak gai honen inguruan egiten duena azalduko dute. Bigarren, kontainerren kokapena aztertu eta hobetu ahal den eztabaidatuko dute. Hirugarren, hondakin organikoak zelan batu pentsatuko dute. Urtea amaitu aurretik egingo dituzte eztabaidak herririk herri.

Hondakin organikoak birziklatzeko bi aukera ikusten dituzte:

**Bizkaiko Foru Aldundiaren apustua bosgarren kontainerra ipintzea da**

te: edukiontzi berri bat ipintzea eta autokonpostajea. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko lehen-dakariak azaldu duenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren apustua bosgarren kontainerra ipintzea da,

**"Landa-eremuan bizi direnek etxeko konpostajea gurago dute agian"**

baina Durangaldean konposterrak erabiltzea posible ikusten du. "Landa-eremuan bizi direnek etxeko konpostajea gurago dute agian". Aukerak neurtu gura dituzte. "Organikoa jasotzen zelan hasi ikusi gura dugu".

Aldundiak 2010-2016 eperako zehaztutako politikaren baitakoak dira asmo hauek, Zarrabeitiak dioenez. ■ M. Onaindia

Astelehenean eta martitzenean etorri ziren bederatzita eta hamabi urte arteko neska-mutil saharaiak, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetatik. Durangora hamalau eta Elorriora sei. Elorrioko Udalak uda herrian pasatuko duten gazteei eguaztenean egin zien ondoetoria. Durangoko Udalak, berriz, eguenean egin zieten harrera. Oporrak Bakean ekimenaren baitan etorri dira neska-mutilok Durangaldera.

Durangoko Herria auzo elkartearen bidez etortzen dira Durangora datozenak; aurten egitasmoa bederatzigarren urtez jarraian antolatu dute, ordezkariak gogoratu dutenez. "Espainian gero eta familia gutxiago daude prest gaztetxok etxean hartzeko; berdin gertatzen da Euskal Autonomia Erkidegoan, maila baxuagoan bada ere. Hala ere, zorionez, aurten iaz beste neska-mutil etorri dira Durangora".

Elorrioren Oporrak Bakean egitasmoagaz bat egiten duten laugarren urtea da. Lajwad elkar-teak kudeatu du programa azkenengo bi urteetan, eta udalak finantzatu egiten du.

Abuztuaren 26ra arte geldituko dira gazte saharaiak eskualdean. Ostean, Aljeriako desertura itzuliko dira. ■ A.B. / J.G.

# Hogei gazte saharaiak Durangon eta Elorrioren pasatuko dute uda

Oporrak Bakean ekimena bederatzigarren urtez egingo dute Durangon, eta laugarrenez Elorrioren



Elorrioren etorritako gazteekin egindako ekitaldia.

OTXANDIO

## Ehundaka lagunek parte hartu dute 'Euskeraz bizi guredu!' lip dubean



Otxandio Euskaldunen Amaraune sareak lib duba grabatu zuen joan zen zapatuan, euskararen erabilera sustatzeko kanpainari hasiera emateko. Herriko elkar-terik gehienak eta ehundaka lagun batu ziren (irudietan dantzari gazteak) grabaketara antolatzaileen esanetan: "Ohiturak aldatzea ez da beti erraza baina ilusioz eginda posible da". Santamañetan estreinatuko da bideoa. ■ J. D.

## 'Gazta zati bat' dokumentala proiektatuko dute Andikonan

Jon Maia bertsolariaren *Gazta zati bat* ikus-entzunezkoa proiektatuko du udalak gaur, 22:15ean, Andikona plazan. Dokumentalean Idiazabal herrian bezala, ideologia anitzeko herritarren hartu-emanak sustatzeko lehen pausua eman gura dute, udal ordezkariak adierazi dutenez: "Ezberdintasunak baztertu eta abertzaleak zein subiranistak batzen gaituenari helduz, ildo anitzetako alderdi politikoetako herritarrak batu eta gure herriagatik, euskaragatik eta Euskal Herriagatik lanean hastea ezinbestekoa da". ■ J. D.

ELORRIO

## Berrio-Otxoaren idazlanak protagonista, bere egunean

Urtero hainbat ekitaldi eratu ohi dituzte 1827an Elorrioren jaiotako elizgizon ospetsuaren omenez

San Balentin Berrio-Otxoa Eguna ospatuko dute eguaztenean. Urtero uztailearen 4an hainbat ekitaldi egiten dituzte 1827an Elorrioren jaiotako elizgizon ospetsuaren omenez. Elizarentzat Bizkaiko zaindariatako bat da Berrio-Otxoa. Aurtengo egitarauan, *Neure amaxo maitia* ikuskizuna prestatu

dute antolatzaileek. 17:30ean hasiko da, Sortzez Garbiaren basilikan. Bertan, Berrio-Otxoak amari idatzitako gutunak errezitatuko dituzte musikagaz lagunduta. Vietnamen misiolari zela bidali zizkion idazlanak. Bere fedea ukatu ez eta martiri hil zuten han, 1861ean.

Berrio-Otxoa oroitzeko meza nagusia 12:00etan egingo dute, basilikan. Gainera, 20:00etan bere izena daraman abesbatzak kontzertua eskainiko du Santa Anako komentuan. Santuaren kofradia-koek bazkaria egingo dute Guria jatetxean. ■ M.O.

**Berrio-Otxoak amari idatzitako gutunak errezitatuko dituzte**

**NACEX**  
 San Roke, 12 behe (48200 DURANGO)  
 Tel.: 94 620 01 62  
 Mug.: 666 444 101  
 4810.operativa@nacex.es  
 www.nacex.es  
 Informazio orokorra: 900 100 000

Hurrengo eraikuntza

**ZARATE ELEXPE**  
 ERA GILEAK  
 Bixente Kapanaga 19, behea  
 Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta  
 www.zarateylexpe.com

**DURANGO**

Elorrioren ere aukera onak

Hemen agertu gura badozu

**deitu!**

**94 621 79 02**



**BERRIZ**

# Energia kontsumoa %40 murriztuko dute kale argiterian

Trenbidetik behera, Olakueta inguruetan 140 luminaria aldatuko dituzte uztailetik azarora

**K**ontsumo energetikoa murrizteko plan bat eratu du Berrizko Udalak, eta lehenengo fasean 140 luminaria berri ipiniko dituzte herriaren beheko aldean. Aldaketa horiekin energia kontsumoa %40 gutxituko dela eta udalak urtean 6.500 euro aurreztuko dituela kalkulatu dute.

Uztailetik azarora bitartean aldatuko dute argiteria. Arkaraz kalean, San Antonio kalean, Ola-

kueta plazan, Urtiaga Plazan, Iturriza kaleko zati batean, Errotatxon, Paduran eta Gernika enparantzan egingo dituzte aldaketak. Orland Isoird Berrizko alkateak azaldu duenez, inguru horretan 30 urte inguruko farolak ere badau-

**Orland Isoird: "Argi mota ere aldatuko dugu, horia beharrean zuria ipinita"**

## 1.500 lagun baino gehiago batuko dira paella lehiaketan

San Pedro eta Santa Isabel jaien egunik handienetakoa izango da biharkoa: Koadrilen Eguna. Udaltxeko lorategian paella lehiaketan parte hartzeko 1.557 pertso-

nek eman dute izena, iaz baino ehun gehiagok. Txosnetan ere bazkaria egongo da eta mozzorro kalejira egingo dute.

Atzo hasi ziren jaiak, San Lorentzo dantza taldearen pregoiagaz. Gaur, San Pedro Egunez, bizikleta martxa, kale antzerkia eta tiragoma txapelketa edukiko dituzte arratsaldean. Gauean Tximeleta taldearen erromeria egongo da, eta txosnetan, 341 eta Arkada Social-en kontzertuak. ■ A.U.



Olakueta inguruetako farola batzuk 30 urte baino gehiago daukate.

de. Zaharrenak Led bonbilladun farolen ordeztuko dituzte. Besteetan potentzia baxuagoko bonbillak ipiniko dituzte; "argi mota ere aldatuko dugu, horia beharrean zuria ipinita". Berriz-

buruko aisialdi gunean eta trenbidetik poligonorako pasealekuan ere farola berriak ipiniko dituzte. Lanetarako 160.000 euro beharko dira, eta Aldundiak 120.000 euroko diru laguntza eman du.

Isoirdek aurreratu duenez, Murgoitio eta Urzabalen ere aldatu gura dute argiteria, beste proiektu batekin: "Auzo horiek nahiko hondatuta daude eta kaleak berrizatzeko asmoa daukagu". ■ A.U.

**GARAI**

## Asteon hasi dira edukiontzi berriak ipintzen herrian

Aste honetan ekin diote beharginek Garain kontenedore berriak ipintzeko obrari. Udal arduradunek azaldu dute sei asteko epea daukatela egitasmoa amaitzeko. Herrigunean eta Milikun lurpeko

edukiontziak kendu eta berriak ipiniko dituzte kanpoan. Aiartzan, San Juanen eta Kurutzondon birziklatzeko hiru kontenedoreak egokituko dituzte. Barrainkun eta Beratun edukiontzi bakarra ipini-

ko dute. Auzoen sarreretan ipiniko dituzte kontainerrak, kamioiak baserrietara sartzea sahiesteko.

Joan zen astean partaidetza foroa egin zuten Garain. Dozena bat lagun aurrean azaldu zuten obra. Gontzal Sarrigoitia alkateak adierazi du partaideek ondo ikusi zutela aldaketa. Kexarik ez zuten agertu batzarrera hurreratu zirenek. ■ M.O.

**BEHERA PENAK**

**UZTAILAREN IETIK AURRERA**

**eme**  
elorrioko merkatarien elkarte

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**  
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

DIURRETA

# Euskararen erabilera bultzatzeko hainbat ekintza egingo dituzte

Ludoteka, zinea eta antzerkia antolatu dituzte

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) baitan, euskararen erabilera eta ezagutza bultzatzeko landutako proiektuak aurkeztu dituzte, guztiak hizkuntzaren transmisioagaz eta hezkuntza esparruagaz lotuta. Udako zinemagaz ekingo diote: *Vickie el vikingo y el martillo de Thor* (uztailak 5) eta *Urteberri on amona* (uztailak 28) proiektuak dituzte, Aita San Migel plaza, 22:00etan.

Urritik abendura ludoteka egongo da (zortzi-hamalau urte)

eta euskarazko zine eta antzerki eskaintza ere bai, Goiuria kultur-gunean eta kultur etxean.

Herritarrek osatutako Aholku Batzordeagaz batera, udalak landutako EBPN ahobatez onartu zen abenduan, Elhuyar Aholkularitza enpresak euskararen diagnostia egin ondoren. Inaki Totorikaguena alkateak onartu duenez, espetrotakoa baino aurrekontu txikiagoa eduki dute, krisi egoerak horretara bultzatuta: 20.000 euro. Udazkenean batuko dira atzera, 2013ari begira. ■ A. B.



Ibarretxe kultur etxean egin dute aurkezpena, asteon. A.B.

## Alkatearen jokaera kritikatu du Bilduk

Lukupeko Troka eta Luku Txiki ibarbideak lurrez betetzeko obra lizentziagaz lotuta sortutako auzian Inaki Totorikaguena alkateak hartutako bidea kritikatu du Bilduk. Alkateak bere aurkako akusazioak faltsuak direla helarazi die herritarrei ohar batez eta minduta sentitu dela.

Horri "lekuz kanpoko" deritzo Bilduk: "Alkateak bere iritzia eman du edo bere burua zuritu, baina, denon diruagaz. Eta, zergatik egin du prozedura amaitzean?". Bilduk ibarbideen auzian "gauzak argitzea" gura du, eta dio EAJK ez duela horretarako "asmo handirik". Alkateak dio sei hilean ez duela ezer esan, eta eskubidea duela. ■ A. B.

## Enpresa berriak sortzeko proiektuen lehiaketa abian

Idea berriak sarituko ditu lurretako Udalak

Herrigunean enpresa berriak sortu daitezkeen sustatzeko. Helburu horregaz abiatu du lurretako Udalak IV. Enpresa-proiektuen lehiaketa. Produktu, prozesu edo zer-

bitzuetan ideia berriak ekarriko dituzten enpresak bultzatu gura dituzte, aberastasuna eta enplegua sortu eta herriko merkataritza birgaituko dutenak.

Saria 9.000 euro dira: obra eta jarduera baimenagaz %20, irekizte-lizentziagaz %50 eta zabaldu eta urtebetera %30. Kontuan hartuko dute originaltasuna, kalitatea, bideragarritasuna eta sortuko lukeen enplegu kopurua; baita bizimoduaren, familiaren eta lanaren arteko bateragarritasuna ere. Oinarriak Bidebarrieta 5eko bulegoetan daude. Urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke egitasmoak. ■ A. B.

IZURTZA

## Gosekale eta Aberaskale nor baino nor jaietan

Jai batzordeak ia osatua du jaietako egitaraua. Aurtengo nobedadeetako bat herri olinpiadak izango dira. Olinpiada horietan herri bitan zatituko dute; Antonio Txi-

ki okindegi alboko bihurtzeko Mañariarantz bizi direnei historikoki Aberaskale deitu izan zaie, eta bihurtzeko herrigunera bizi direnei Gosekale. Inskripzioa hasten denean talde batean edo bestean emango dute izena herritarrek. Bestalde, mozorro lehiaketarako gaia *Kirola* izango da aurtentzen, jai batzordean adostu dute. ■ J.D.

anbotoko argazki lehiaketa 2013

12 hile herri

oinarriak: [www.anboto.org-n](http://www.anboto.org-n)







## Durungaldean labor

### Sanmartinak ospatuko dituzte lurretako Amatz auzoan

Bihar, 19:00etan, Donien Atxa jasota hasiko dituzte San Martin jaiak Amatzan. Biharkoa mozorro eguna izango da. Tortilla txapelkaren ostean, Txomin Bedarrak taldeak erromeria eskainiko du. Domekan, trikitilariekin kalejira eta dantza saioak egongo dira goizean. Auzo bazkariaren ostean, karta eta igel txapelketak egongo dira. Eguaztenean, San Martin Eguanean, meza eta luntxa egongo dira, 11:30ean.

### Lurretako Udalak 1,1 milioi eurogaz itxi du 2011 urtea

Diru-bilketa eta diru-sarrerak "sistematikoki" gutxitu arren, lurretako Udalak 1,137 milioi euroko soberakina daukala jakinarazi du asteon Iñaki Totorikaguena alkateak: "Koltxoi txiki honek etorkizunari, eta 2012ari begiratzeko aukera ematen digu". Iaz aurreikusitako diru-sarreraren %75 inguru bete zela azaldu du, eta kapitulu batzuetan %100era heldu zirela.

### LABek presoan alde batzera deitu du

LAB sindikatuak hileko azken ostirala dela eta elkarretaratze berezia deitu du gaurko, Eitua poligonoan, Berrizen, 13:30etik 14:30era: "Presoen eskubideen defentsan langileok ere lehen lerroan egon behar dugu." Herrikako elkarretaratzeetan parte hartzeko deia ere egin du LABek.

### Adinekoak zaintzen dituztenei laguntza

Aldundiak 68.500 euro inbertituko ditu Durungaldean Zainduz programagaz. Amankomunazgoagaz hitzarmena lotu du. Adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzat prebentzio jarduerak, boluntarioria jarduerak eta laguntza psikosoziala eskaintzea dute helburu.

#### ABADIÑO

### Euskararen ordenantza gaurkotua onartu dute

Udal administrazioan eta kalean euskararen normalizazioan indar egiteko jarraibideak biltzen ditu 2000. urteko ordenantzaren bertsio berriak. Bi urtean osatu du aholku batzorde batek ordenantza. Batzordekideei eskerrak eman zizkieten, martitzeneko plenoan, hiru alderdien bozeroaleek.

Proposamenaren alde bozkatu zuten Alk eta EAJk, eta abstenitu egin zen Bildu. Ordenantza arauak betearazteko neurriak ez dela zehazten aipatu zuen Azuetak (Bildu): "Beharrezkoa eta positiboa ikusten dugu ordenantza, baina hutsuneak dituela uste dugulako abstenitu egingo gara". Eneko Etxebarriak azaldu zuen EAJren aldeko botoa: "Hobeiazan zitekeen, baina zoriontzekoa da euskararen ordenantza edukitzea bera". ■ I.E.

### Urtebete atzeratu dituzte Zelaieta eskolako obrak

Alkateak azaldu duenez, 2013ko udan burutuko ditu Hezkuntza sailak Zelaieta eskolako lanak

Obrak burutzeko dirurik "oraindik" ez daukala jakinarazi dio Jauriaritzak Abadiñoko alkateari. Alkatea "arduratuta" agertu da. Uda honetan ez dute obrarik egingo Zelaieta eskola publikoan. Horrela jakinarazi zuen Jose Luis Navarro alkateak martitzeneko udalbatzarrean: "Gaur bertan egin dut Hezkuntza sailarekin berba, eta jantokiko lanak 2013ko udan egingo dela asmoa esan didate".

**Obrak burutzeko dirurik ez daukala esan dio Jauriaritzak Abadiñoko alkateari**

Abadiñoko Independentiek taldearen alkateak adierazi duenez, "oraingo egoera berean ekingo diote irailean ikasturte berriari Zelaieta eskolan".

Galdera eta eskarien tartean ekarri zuen Saioa Zuazubizkar zinegotziak (Bildu) eskolako obraren gaia udalbatzarrerara. "Zelaietako eskolako gurasoek jantokiagaz daukaten kezka" helarazi zuen Bilduko zinegotziak. Galdera horri erantzunez eman zuen Jose Luis Navarro alkateak albistea.

Lehentasuna jantokiko obrei ematea eskatu zuen Saioa Zuazubizkarrek, gurasoen iritziz eskola publikoan daukaten beharrian larrietakoa delako. ■ I.E.



Galdera eta eskarien tartean atera zuen Bilduk gaia.

#### MAÑARIA

### Lagunarteko giroan amaitu dituzte beharrak auzolanean

Boluntario guztien ekarpena eskertzeko, udalak doako bazkaria antolatu zuen joan zen zapatuan

Amaitu dituzte auzolanak Mañarian. Joan zen zapatuan lagunarteko bazkaria egin zuten parte-hartzaileek. Ekaineko lehenengo aste-buru bietan auzobideak garbitzen eta inguruak atontzen ibili ziren.

**Udalak bultzatutako auzolanetan 58 lagunek parte hartu dute guztira**

Zapatuan, ostera, bestelako beharrak egin zituzten, helduek gainera umeeke parte hartzeko modukoak. Endika Jaio alkateak azaldu du, besteak beste, barandak margotzen ibili zirela taldean. Boluntario guztien ekarpena eskertzeko, udalak doako bazkaria antolatu zuen zapatuan.

Udalak sustatutako auzolanetan 58 lagunek parte hartu dute, Jaio adierazi duenez. Partaidetza bultzatzea, ohitura zaharra berreskuratzea eta dirua aurrezteko izan dute helburu. ■ M.O.

#### ATXONDO

### Astelehenean irekiko dute igerilekua, iraila amaitu arte

Aurreikusitako data baino hamabost egun beranduago irekiko dituzte Atxondoko igerilekuak, beharrezko konponketa eta azterketa guztiak gaindituta. Uraren kalitatearen gaineko azterketaren emaitzak jakitea falta zen, eta

asteon esan diete azterketaren datuak balekoak direla. Beraz, astelehenean hasi eta irailaren 30era arte erabilgarri egongo dira igerilekuak: 11:00etatik 20:00etara, astelehenetik domekara.

Prezioak honako hauek dira: familia txartelak 60 euro dira erroldatuentzat eta 100 euro herrian erroldatuta ez daudenentzat. Banakako txartelak (hamazortzi urtetik gorakoak) 33 eta 56 euro dira, hurrenez hurren. Gazteagoentzako txartelak, aldiz, 22,5 eta 38 euro dira. ■ M.O.

IK

Iurreta kopistegia

Testu liburuen erosketarekin

Bidebarrieta, 1  
48215 IURRETA  
Tel. 94 681 10 70  
mac@iurretakopi.com

%

10

-eko

deskontua

eskola-materialean

## BERBAZ&gt;

# “Bidean sinesten badugu eta elkartzen bagara, nork geldituko gaitu?”

Egoera politikoaren analisi baikorra egiten du Elorrioko alkate ohiak; agenda eta bidea argi ikusten ditu

**S**ortu legezkoa izango dela jakin eta aste betera “pozik eta lasai” dago Niko Moreno Ezker Abertzaleko bozeroalea. Etorriko diren urratsei buruz eta indarrak bateratzearen gainean jardun du galderak erantzuten.

*Zelan jaso duzu Sorturen legeztapenaren albistea?*

Ezinbesteko pausua izan da egoera normalizatu baterantz abiatu behar badugu. Gernikako Akordioan eta Aieteko Konferentziaren ebazpenean ere ezinbesteko baldintzat hartu zen. Ez dakidana da zer dela-eta itxaron behar izan dugun pasa den urteko otsailetik orain arte. Sortu egoera judizial baten egon denez denbora honetan guztian Ezker Abertzaleak ezin izan du politikagintzan era normalizatu ibili. Pozik nago, eta lasai, eman beharreko urratsek beste babes bat izango dutelako. Bide luzea geratzen da, baina hau ezinbesteko urratsa izan da eszenatoki demokratiko baterantz.


“PPk berak erabilitako esaldia erabilia, esan ahal diogu demokraziarako bidea egin behar dutela”

*Bateragune lako auziak hor daude.*

Bateragune auziaren ondorioak absurduak dira. Bere momentuan [Espainiako] estatuak bazekien zein zen Ezker Abertzalearen planteamentu berria, eta hori oztopatu gura izan zuen. Sortu legala zein ilegala izan, Bateragune auzia erabat absurdoa da, eta denborarekin are absurdoagoa bihurtu da. Argi dagoena da alde bat eman beharreko urratsak ematen ari dela eszenatoki demokratiko batera. Arnaldo Otegi berak epaiketan esandakoa errepikatuko nuke; “gu esaten gabiltzana gertatu egingo da”. Gure agenda eta gure bidea guk markatzen ditugu. Beste batzuek baldintzatu arren, gure bidea markatuta dago eta badakigu norantza goazen.

*Sorturen legalizazioa begi onez hartu dute alderdi gehienek. PPK eta Espainiako Gobernuak, aldiz, ez. Jarrera horrek kezkatu egiten zaitu?*

Bai, eta asko. Horrek esan gura du Zuzenbide Estatu eurentzako norabide bakarrekoa dela; euren aldeko ebazpenak daudenean Zuzenbide Estatuak funtzionatzen du, baina bestela ez. Eskema zaharrekin jarraitzen dute, azken urte bietako mugimendu guztiak eta jendar-tearen erantzuna ikusi barik. Oraindik pentsatzen dute sektore oso batek ezin duela eskubiderik eduki politikagintzan era normalizatu batean ibiltzeko. Eurek



“Ez gaude eskema klasiko baten, gauzak negoziatzen eta horren arabera urratsak ematen; konbentzimenduz erabakiak hartu egiten dira”

erabili izan duten esaldi bat erabilia, orain lasai esan ahal diegu demokraziarako trantsizioa egin behar dutela, iraganezko kontu horiek guztiak atzean utzita.

*Markatuta dagoen bide bat aipatu duzu. Alderdi popularra ren jarrerak zenbateraino eragin ahal dio bide horri?*

Uste dugu prozesua ondo bideratuta egoteko alde guztiak eman behar dutela eman beharrekoa, baina argi eduki dugu hasieratik ez gaudela eskema klasiko batean, gauzak negoziatzen eta horren arabera urratsak ematen; konbentzimenduz, erabakiak hartu egiten dira, beste aldeak egiten duena egiten duela. Bidea azkarrago edo polikiago joango da beste aldeak laguntzen badu edo ez, baina ez da ezinbesteko baldintza.

*Zeintzuk izan beharko lirateke hurrengo urratsak?*

Gatazkaren ondorioak konpondu behar dira; kartzela politika malgutu behar da eta desarma egon beharko da. Ezinbestez, eta ez dakigu noiz eta nola, ETA eta Espainiako estatua berba egiteko jarri beharko dira. Horrez gainera, Sorturen legalizazioarekin jazarpen politikoa gutxitu da zelanbait, baina badaude beste prozesu batzuk, 18/98 eta beste, bertan behera geratu beharko liratekeenak.

*Zer diozu biktimen aitortzari buruz?*

Normaltasun elementu horietatik kanpo utzi ezin dugun zerbait da hori. Hor, aurkeztu berri duten Gleencree ekimenak aurrera begirako pista sendoa eman du: alde guztietako biktimak prozesu isil

## Niko Moreno •

▪ Elorrio, 1963

▪ Ezker Abertzaleko bozeroalea. Argazkilaria eta Elorrioko alkate ohi.

baten elkartu dira, eta hor badago bide bat benetan gura badugu galtzailerik eta irabazlerik ez egotea eta gatazka bere osotasunean gaitzeko. Mailaketan ibili beharrean, bata bestea baino biktimgoa edo errudunagoa, aitortu behar dugu denok trantsizio fase batean gaudela, aurrera egiteko. Sufirimendua ez da izan behar tresna politikoa bata bestearen gainetik kokatzeko.

*Gernikako Akordioan, eta geroago, koalizioetan, alderdi politikoaren topaguneak sortu dira. Zelan baloratzen dozu hori?*

Fase berri bat sortzeko ahaleginak dira. PP, PSOE eta EAJ alderdi nagusien jarduketik paraleloan, beste mugimendu bat sortu da, helburu batekin: gatazka gaitzeko elementuak kontuan hartuta, marko demokratiko berria sortzea. Independentziarantz jo gura dugu, arrazoi ekonomiko, soziologiko eta politikoenatik. Apurka sendotzen joan den mugimendua izan da. Elkarren arteko konfidantza sortu da, eta jendar-tearen ere konfidantza sortu du. Horrek indar politikoaren arteko hartuemana sendotu du.

*Euskal Herrian ohikoa izan da alderdi politikoak zatitzea.*

Bai, eta ez da mesedegarria izan. Orain ikusi dugu badela momentua estrategikoki elkartzeko eta amankomunean dauzkagun helburuak betetzeko. Euskal Herri independentea, ezkerretik eraikitakoa eta European indarra edukiko duena gura dugu, ez Espainiari eta Frantziari lotuta. Batzuentzako ametsa edo utopia izan dena gertu eta gauzagarri ikusten dugu. Behar duguna da ilusio metxa hori gehiago piztea eta etsipenean ez jaustea. Bidean sinesten badugu eta elkartzen bagara, zerk geldituko gaitu? Demonstratu dugu oztopo guztien gainetik aurrera joateko gai izan garela, batez ere oinarri sozial eta zabal bat dagoelako itxaroten. Indar hori kanalizatu egin behar da aurrera egiteko. ■ A.Ugalde

@anbotokultura

# KULTURA<sup>></sup>

MUSIKA>

## Biolontxeloaren doinuak eta jazza, Durangaldeko musikarien eskutik

Zornotza eta Durangoko musikarien Bost-On Suite jazz taldeak kontzertua eskaini zuen eguaztenean, Durangoko udako kultur egitarauaren barruan. Taldeko saxofonistak aurkeztu du boskotea, Ander Erzilla durangarrak. Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako irakaslea ere bada. Hain zuzen, musika esko-

lan sortu dute Gehi Zazpi proiektu musikala ere: biolontxelo ikasten duten sei gaztek eta euren irakasleak, Irati Ortubiak osatzen dute zazpikotea.

Gehi Zazpikoez bihar eskainiko dute kontzertua, Elorrioren antolatutako Musikaire jaialdiaren barruan. Elorrioko elizantza izango da, 20:00etatik aurrera.



### Gehi Zazpi biolontxelo taldea: musika eskolatik Musikairera

Musika klaseen diziplina apurtu eta ondo pasatzeko sortu dute zazpikotea

Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan jaio zen Gehi Zazpi. Iazko ikasturtean. "Hasierran zerbait pedagogikoa antzera", Irati Ortubia irakasle eta taldekideak azaldu duenez. Ortu biagaz batera, bere sei ikasle osatzen dute Gehi Zazpi zazpikotea. Biolontxelo ikasten dute guztiek, eta oso gazteak dira: hamalau urte dituzte taldekide gazteak.

"Oso proiektu interesgarria da, oso gazteak diren arren dagoeneko oso ondo ematen dute taldeak belarrira", dio irakasleak. "Maila handiagoa daukatenean primerakoa izango da".

Errepertorio klasikoaz aparte, zerbait desberdina, "dibertigarriagoa, melodikoagoa", egiteko asmoagaz eratu zuten joan zen ikasturtean Gehi Zazpi biolontxelo taldea.

Musika ikasketen ohiko diziplinagaz apurtu eta ondo pasatzeko helburuz ekin zioten proiektuari, eta Durangon hainbat bider jo dute ordutik. Musika eskolako aretoan hasi ziren, eta Andra Mariko elizpean eta San Agustin kultur-gunean ere jo dute geroago.

Bihar, Elorrioko Musikaire jaialdiaren parte izango dira. "Pixka bat serioagoa da", dio Irati Ortubiak. Asteon, kontzertu horretarako errepertorioa prestatzen egon dira zazpi neska Bartolome Ertzilla musika eskolan.

Elorrioko emanaldian, kanta klasikoekin batera, Metallica edo Cesarea Evoraren bertsoak eskainiko dituzte, besteak beste: "Jendea gustatuko zaion zerbait eskaintzea". Hori izan da kanten zerrenda egiterakoan bilatu dutena.

## "Jazz berbak oraindik ere aurreiritzi okerrak sortzen ditu sarritan"

Ander Erzilla durangarra da Bost-On Suite taldeko saxofonista; eguaztenean eskaini zutenaz aritu da

**Lau-On Suite bezala aurkeztu zarete Uda Kalean Bizi jaialdiaren egitarauan, baina bost aritu zineten eguaztenean.**

Bai, boskotea gara berez, Bost-On Suite izenekoak: bi saxo, gitarra, bateria eta kontrabaxua. Durangoko kontzertuaren datagaz arazoak zeuzkan beste saxofonistak, eta horregatik erabaki genuen Uda Kalean Bizi jaialdian Lau-On Suite izenagaz aurkeztea. Baina, azkenean, data egokitzea lortu eta bostok jo genuen.

**Noiztik zabilzate elkarrekin?** Aspalditik daukagu harreman musikala: bateria eta saxofonista, esaterako, elkarrekin aritu dira beste proiektu batzuetan ere. Jazzean zaila da ezer finkoa mantentzea, baina horretan gabiltza.

**Zerk elkartu zintuzten?**

Denok gabiltza jazz inprobisazioaren inguruan. Hainbat aldiz egin dugu topo beste proiektu batzuetan, eta musikan antzeko interesak dauzkagu.

**Eguaztenean jazzlari biren lana izan zenuten oinarri.**

Bai. Kontzertu hau diseinatzerakoan errepertorio atsegina osatzea izan da helburua. Bill Frisell eta John Scofield autoreak hau-

"Oso zaila da musikari eta irakasle izatea, eta gainera kontzertuak lortzen saiatzea"



tatu ditugu. Gitarristak dira biak, eta oso musikari handiak. Erronka handia da horrelako autore handien bertsoak egitea.

**Zer da errepertorio 'atsegina'?**

Jazz berbak oraindik ere aurreiritzi okerrak sortzen ditu sarritan: "Kristoren txapa emango digute hauek", pentsatzen dute askok. Eguaztenean emanaldian entzuleari erreferentzia puntu batzuk eman gura izan genizkion, obra identifikatzen laguntzeko.

**Kalean eta estalperik gabe jotzea, zelan?**

Oso eskertzekoa da San Agustino kudeatzaileek bertako jendeari jotzeko aukera eskaintzea.

**Orain hiru urte ere jo zenuten Etzezarreta parkean, eta entzule asko batu zen.**

Horrela da, bai. Izan ere, badira hiru urte inprobisazio saioak egiten ditugula Durangoko Plateruenean, eta beharbada horrek ere lagunduko zuen honelako kon-

tzertuetara datorren publiko hori sortzen. Platerueneko saioak, jazz musikaren Durangoko zalegoa erakartzeko antolatzen ditugu, eta eskolako ikasle eta irakasleei jotzeko leku bat eskaintzeko.

**Badaukazue nahi beste kontzertu eskaintzeko aukerarik?**

Oso zaila da musikari eta irakasle izatea, eta gainera kontzertuak lortzen saiatzea. Jotzeko aukerak oso gutxi dira, eta baldintzak oso eskasak. ■ I. Esteban

DANTZA >

# Dantza ibilbidearen 25 urteak, musikarekin eta kantuarekin

Kriskitin dantza taldearen 25. urteurrena ospatzeko ikuskizun nagusia bihar eskainiko dute



Urte hasieran abiatu zituzten urteurreneko ekitaldiak, eta balantze oso positiboa egin dute.

**D**urangoko Andra Mariko elizpean eskainiko dute Kriskitin dantza taldearen 25. urteurreneko ikuskizun nagusia, bihar, 22:00etan. Iazko urte amaieratik prestatzen aritu dira, eta dantza, kanta eta musika uztartu dituzte.

Otsailean hasi zituzten ospakizun ekitaldiak, eta orain arte egindakoen balantze positiboa egin du Egoitz Esturo zuzendariak: "Taldearentzat motibatzaileak izaten ari dira ekitaldiak".

Biharko emanaldiaren ostean, Kriskitin Eguna antolatzeari ekingo diote taldekideek: abenduaren 15ean ospatuko dute. Biharko dantza saioko bideo eta argazkien emanaldia, triki-poteoa, bazkaria eta erromeria burutuko dituzte,

"Taldearentzat motibatzaileak izaten ari dira ekitaldiak"

te, esaterako, urte amaierako hitzordu horretan. Lagun artean eta dantzan igaroko dute eguna.

Baina, abendura arte, udazkenean zehar ere beste hainbat ekimen egingo ditu Durangoko Kriskitin dantza taldeak. Besteak beste, "taldearen 25 urteotako historia gal ez dadin", ikuskizunak, anekdotak, argazkiak eta bizipenak jasoko dituen liburuia prestatzen dihardute taldekideek, eta bi erromeria gehiago ere ospatuko dituzte oraindik. ■ I.E.

## GEURE DURANGALDEA

Jon Irazabal  
Gerediagako kidea



### EZ DA POSIBLE... ESAN ZIGUTEN

Joan zen larunbatean inauguratu zituzten Gerediaga auzoan A8 autopistan burutu dituzten obrak. Dirudienez, lan honen bidez Iurretatik N-634 errepidean auto eta kamioi gutxiago ibiliko dira. Ongi etorriak honelako berriak. Gaiari buruz berbetan, gogoratzen hasi ginen. 1996-98 urteetan, Foru Aldundia Iurretan N-634 bidea hobetzen hasi zenean, hainbat biztanle lan haien aurka azaldu ginen bide nagusi horrek herria zati bitan banatzen jarraitu zuelako. Beharrezko ikusten genuen herritik ahal den gehiena urruntzea eta ondorioz eskatu genuen bidea autobide ingurura eramatea. Ez genuen ulertzen herri batzuetan bideak etxeetatik urruntzen ibiltzea eta Iurretan ez. Eskatu genuen ingurune-kaltearen ikerketa, baina 'kasualitateak': bi km baino gutxiagoko lana izanik ez zuen behar.

Alternatiba bat aurkeztu genuen; autopistan hirugarren erreia egitea, autobideko goiko ordain-kabinak Mallabienarantz eramatea eta Iurretan behealdean daudenak Gerediagan jartzea. Horrela posible izango zelako Iurretatik Gerediagara dohainik izatea autobidea, eta Bidebarrietako errepidea kale bihurtzea. Erotuta geunden, ez zen posible. Udalaren hirigintza arloko teknikari nagusiak esan zigun ez zegoela toki fisikorik autopista zabaltzeko, ez zela posible, nahiz eta txikia izan tartea, dohainik izatea autobideko zati hori... Eta berba 'politekin' esan zigun nola hitz egiten genuen 'teknikari diplomatuak' izan gabe eta isilik egoteko. EAJren zinegotzi batek esan zigun benetako arazoa zela erakundeek ez zutela gogo politikorik planak aldatzeko.

Eta... Joan zen larunbatean jakin dugu, hirugarren erreia egin da dagoela, Iurretatik Gerediagara dohainik dela... Kontxo! Iurretako udal teknikariak jakin gabe herriko lurrak zabaldu egin ote dituzte? Interbiak-ek bere webgunean dio: "AP-8 autobidea N-634 errepidearen doako alternatiba bihurtuko da Iurretan". Baina... Hori horrela izateko kamioiak etabar autobidera "bideratu" beharko dira. Noizko? Hamasei urte barru?

## Uztailaren 5ean Azokara eramango dute Herri Bibliotekaren eskaintza

Baserriko produktuen eta bestelako salgaien artera, kalera, aterako dute uztailaren 5ean Herri Biblioteka

Udalak hamabostero antolatzen duen Kale Azokara aterako dute Herri Biblioteka, uztailaren 5ean.

Merkatuaren barruan atonduko duten Bibliotekaren gunean ipiniko dituzte Bibliotekako bildumako produktuak herritarren eskura: liburuak, pelikulak, musika, e-liburuak, tabletak... Deneratiko eroango dute, jendeak liburutegiaren eskaintza irakurri, ikusi, entzun eta ukitu ahal izateko.

Besteak beste, bazkide egiteko aukera izango dute bertaratzen

direnek, eta bertan jakin ahalko dute zehatzago Herri Bibliotekak antolatzen dituen ekintzen berri. Produktuak maileguan ere hartu ahalko dituzte gura duenak, eta ezuztekoak ere izango direla aurreratu dute antolatzaileek. ■ I.E.

Besteak beste, bazkide egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek

## Dantzari belaunaldiak batuta: kantua, musika eta dantza

Taldearen mende laurdeneko historiari errepaso egiteko sortu du Kriskitinek biharko ikuskizuna. Hainbat lanetako parteak nahastu eta gaurkotuz osatu dute ikuskaria: *Berrasi*, *Kriskitinen ahotsa*, *Amillanpetik* eta *Aup*. Egoitz Esturo taldeko zuzendariak azaldu duenez, emaitza "Kriskitinen 25 urteko bidea erakusten duen ordu eta erdiko ibilbidea da".

Dantza taldearen belaunaldi guztietako dantzariak parte hartuko dute emanaldian, eta Kexus Uriartek prestatutako koreografia dantzatuko dute. Guztira, 150 pertsona ariko dira ikuskizunean, eta horietatik ehun dira dantzariak.

Dantzarietaz gainera, mende laurden honetan taldea lagundu duten musikariak eta abeslariak ere parte hartuko dute

Kriskitinek biharko antolatu duen emanaldian. Durangoko Bogoroditsie eta Doinu Zahar abesbatzetako 20 kantarik eta 15 musikaririk kolaboratuko dute, besteak beste.

Xeberri kantari eta bikoizle durangarrak aurkeztuko du saioa, eta Kristina Mardaras bertsolari iurretarrak ere jardungo du ikuskizunean.

Egoitz Esturo zuzendariak urteurreneko ekitaldien aurkezpenaz azaldu zuenez, 25 urteetako lanaren lagina, taldeak bizitako eboluzioa islatuko dute ikuskizunean. ■ I.E.

katerin ardoak  
iñaki uribe  
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
saltsan  
saltsan.com

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik  
clínica dental hortz klinika  
b. unamunzaga e. etxebarria  
{ odontologia orokorra eta espezialitateak }  
muretatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

**A CENTRAL FORESTAL**  
Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura  
Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA  
Tf.: 946 205 187  
Faxa: 946 205 194

ARGAZKIGINTZA >

# “Inportantea da uneoro argazkiak egiteko grinari eusten jakitea ere”

Itxuraz ezdeusak eman dezaketen eguneroko egoerei buruzko gogoetatik sorturikoa da Mikel Ibarrolaren (Iruña, 1982) *Pasos*. Ezkurdiko erakusketa aretoan ipini du lana ikusgai

**‘Pasos’ aurkeztu duzu Begira argazki jaialdian: 2009an martxan ipini eta oraindik zabalik dagoen proiektua. Zertan datza?**  
Nire argazkigintzaren ikuspegi aldaketa baten ondorioz, 2009an jaio zen proiektua. Aldaketa hori ez datza hainbeste istorio erreale baten inguruko elementuen bilaketan; testuinguru barik, modu atemporallean eta zatikatuta agertzen zaigun eguneroko baten bilaketan baizik. Hori da nire ikuspuntutik proiektuaren zentzua. Hala eta guztiz ere, hortik aurrera ikusleak bere ikuspuntu eta interpretazioak eraikiko ditu argazkigintza proposamen honek eskaintzen dituen zeinu sinbolikoei bere zentzua emateko.

**Zein izan zen argazkigintza proiektu honen hasiera?**

Orain hiru urte sortu nuen *Pasos*, eta zabalik jarraitzen du. Irekita dago etorkizuneko berreraiketara: ez dauka ez muga geografiko ez tenporalik. Begira argazki jaialdiaren barruko erakusketa hau, proiektuaren lehenengo aurkezpena da, eta oso pozik nago Durangokoa lako argazki jaialdi batean aurkeztu dezakedalako.

**Eguneroko bizitzan oharkabean pasatzen diren gauzei buruzko argazkiak direla adierazi duzu. Zergatik erreparatu printzipioz axolagabea dirudienari?**

Egunerokotasunari begiratzeko interes pertsonal batetik sortu zen *Pasos*: nire harridurarako ahalmena akuilatze eta hain gertu daukagun arren sarritan oharkabean igarotzen zaiguna zalantzan jartzeko helburuagaz dihardut.

**Zuri-beltzak dira bildumako argazki guztiak. Arrazoi bereziren bat?**

Uste dut estilo kontua baino ez dela zuri-beltzaren aukeraketa. For-

matuarekin eta estetikarekin batera autoreak bere proiektua garatzeko apropos ikusten dituen mugetako bat baino ez da zuri-beltzaren hautaketa.

**Zelan egiten duzu lan? Kamera beti aldean eramaten duzu?**

Proiektuaren arabera, lan dinamika bat edo bestea erabiltzen dut. *Pasos* ez da argazki kopuru handiko ekoizpena behar duen proiektua. Horregatik, argazki kamera beti eskura izaten dudana arren, ez dut argazki asko egiten. Proiektu honetan gogoetarako eta bizipenatarako tartea uste dut oso inportantea dela, eta horrek aldentzen nau hainbeste argazki egiteko larritasun horretatik. Uste dut, inportantea dela uneoro argazkiak egiten ibiltzeko grinari eusten jakitea ere: dena izan daiteke argazki baterako interesantea, baina aukeratzea garrantzitsua da.

“Argazki kamera beti eskura izaten dudana arren, ez dut argazki asko egiten”

**Egon zara Durangoko Begira argazki jaialdiko gainontzeko erakusketetan?**

Erakusketa inauguratu aurretik egon nintzen beste erakusketak bisitatzen. Jaialdiko eskaintza oso positiboa dela uste dut, lan oso desberdinak ezagutzeko aukera ematen duelako. Gainera, Begirako erakusketetako autore guztiak oso interesgarri iruditzen zaidan elementua partekatzen dute: argazkigintzako sorkuntzarako begiradaren iragazki nagusia subjektibitatea izatea. Bestalde, hitzaldi, tailer, erakusketa eta proiektioetan parte hartzeko aukerak,

argazkilaritzaren inguruko giro kultural oso aberasgarria sortzen duela uste dut. Interesgarriena, lan egiteko era desberdinak ezagutzeko aukera da, eta argazkigintzarako interesa duen jendeagaz elkar eragiteko aukera izatea.

**Jaialdiaren antolatzaile Leo Simoesekin kolaboratu izan duzu. Zelan joan zen erretratuen proiektua?**

Duela urte batzuetatik ezagutzen dut Leo Simoes, eta elkarrekin lan egin izan dugu hainbat aldiz. *Primera vista* lanean, antzinako argazkilari ibiltarien estiloan, Nafarroako herrietan topatzen genuen jendeari argazkiak egitea zen egitasmoa. Hainbat arrazoi direla medio, proiektua amaitu barik dago, baina beharbada etorkizunean berrartu ahalko dugu.

**Badaukazu Simoesekin beste kolaboraziorik?**

Orain ez gabiltzan arren elkarrekin proiektu zehatz bat garatzen, gure arteko kolaborazioa etenbako da, argazkilaritzagatiko zaletasunak ezezik laguntasunak ere elkartzen baikaitu. ■ I.E.



Mikel Ibarrola argazkilariaaren autorretratua.

## Argazkilaritzak hartu ditu Durangoko hainbat espazio

Ezkurdiko erakusketa aretoan ipini du, Mikel Ibarrolak *Pasos* bildumako bere lana. Uztailaren 8ra arte izango dira bere lanak Ezkurdiko aretoan. Horrez gain, Durangoko erdiguneko hainbat espazio argazkilaritzak beteko ditu uztail erdialdera arte.

Esaterako, San Agustin kultureguneko sarreran, Natacha Marlo Granadako argazkilaria-*Absoluto* topatuko du ber-

taratzen denak: hamabi metro karratuko argazki collage-a.

Durangoko Arte eta Historia Museoa, Laetitia Donval argazkilari frantsesaren *Nerves, Fest & La Maison* izeneko bilduma dago uztailaren 15era arte.

Egun horretara arte ere egongo da *Hexápoda* erakusketakolektiboa, Arte Leku galerian: El Trapiche taldeko bost argazkilariren lanak batzen ditu.



Exápoda erakusketa kolektiboa.

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

**ROCK IZAR ESKOLA GALA**  
18:00etan, txikiak  
20:00etan, nagusiak  
EKAINAK 29an

**...irailaren hasieratik BERRIRO MARTXAN!**

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**CARNEROS** Organik Dantza Taldea Krego Martin Danza  
**ASI Y RESTAR**  
EZKURDI - Uztailak 1 • 12:00

**EL SHOW DE DODO** Musica Cabaret  
ANDRA MARIA PLAZA  
Uztailak 6 • 20:00

**UDA KALEAN BIZI**

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

**Hitz**  
liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

# IRITZIA >

gutunak@anboto.org

## Gutunak @

### Eskuak gora, hau lapurreta bat da! Lotsagarria.

Bai lagunok, aurten ere betiko moduen, Apatako igerilekuak berandu zabalduko dira. Hauek bai aurpegi gogorra eta lotsa gutxi. Urteak dira bertoko bazkide egiten garela eta jada ez dugu gogoratzen egunean, hau da, ekainaren 15ean goizeko 11etan, azkenez noiz zabaldu zuten. Eta nahikoa da, gezur gehiagorik ez. Gero noiz arte egongo dira zabalik? Irailaren 30era arte, adibidez!

Hau guztia nahikoa izan ez eta aurten alkate jaunak eta udal osoak inongo lotsa barik, prezioak gora, gora, gora jaso dituzte. Bai, bai, lotsabakook. Eta gainera Elorrixoko Udalari diru laguntza eskatzeko aurpegi gogorra daukate.

Orain arte ez al dugu elorriarrok Apatako baino ia dobla ordaindu? Adibidez, iazko bono familiarra: Apatakoentzat 51 euro eta Elorrixokoentzat 80 euro. Eta horrela beste tarifa guztietan, egun soltekoak izan ezik. Eta aurten, sorpresa: Apatakoentzat 60 euro eta Elorrixokoentzat 100 euro. Bai, atara kontuak, beraiantzako %18 baino zertxobait gutxiagoko igoera eta elorrixokoentzako %25ekoa. Nola geratzen zarete/gara? Noraino heldu behar da kontua? Gainera, entzun dudanez, Elorrixoko Udalak diru laguntza eman dio Apatako Udalari igerilekuen hobekuntzak ordaintzeko. Diru laguntza eman? Ez dago eskubiderik! Elorriarrok ez dugu onartzen diru laguntza ematerik, eta gutxiago gutaz barrez lehertzen dauden horiei.

Apatako igerilekuek zabalik edo bizirik irauten badute, guri, elorriarrei esker da. Bertara joaten diren %95, gutxienez, Elorriokoak garelako. Beraz, badakigu, Elorrioko adiskideok, aurten ez gara Apatako igerilekuetara joango, boikota egin behar diegu. Askoz ere merkeagoa egiten zaigu, Abadiñoko igerilekuetara joatea, bono familiarra (hiruhilabetekoa): abadiñarrentzat 42,19 euro eta kanpokoentzat 58,60 euro; edo eta Gasteizera joatea. Adibidez nik Gamarran bi ume eta heldu batentzako bonoa ateratzen badut 46,20 ordaindu behar dut. Zuek ikusi baina kontuak argi ikusten dira.

Aurten Apatako igerilekuei boikota!

Ez al gaude ba krisian? Ez al dugu ba herritarrok krisirik jasaten? Eskerrik asko elorriarroi ematen diguzuen aukera eta erraztasunagatik.

Leire Arteaga eta Elorrioko beste 25 erabiltzaile

## Klik batean @



### Olgetaleku zikina

Umeentzako parke honetan zikinkeria nagusi dela jakitera eman du Anbotoko irakurle batek. San Inazio auzuneko jolastokian pipa azalak eta gozoki poltsak izaten direla nagusi gaineratu du: "Udalaren eta erabiltzaileen ardurara da umeak dabilzan ingurua garbi egotea".

## Sei hankako mahaia

Idoia Agorria PSE-EE



### Ba al zenekien...

Gero eta gehiago gure barrura begiratzen dugu autokritika egiteko eta egindakoa hobetzeko. Horretaz gain, kaletik goazenean herritarrek beraien kritikak, ikuspuntuak eta iradokizunak azaltzen dizkigute, gu geu ere herriko jendea gara-eta. Urte asko daramatzagu gure herriko beharreatatik lan eginez. Gure ustez, argi eta garbi azaldu behar dugu nola dauden udaleko gauzak, akordioak eta abar. Adibidez:

Ba al zenekien... Aurreko lege-gintzaldian gehien garestitu ziren obretan (igerilekuak, liburutegia, etabar) 8 milioi eurotik gorako gehikuntza izan zela? Alegia, 450 euro baino gehiago durangar bakoitzeko.

### Argi eta garbi azaldu behar dugu nola dauden udaleko gauzak, akordioak eta abar

Ba al zenekien... Tabira eta Sabeco arteko sailhesbidea 2013. urterako amaitu behar zela eta oraindik ez dela hasi?

Ba al zenekien... 2007. urtean Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza eman zuela San Faustoko gizarte-etxea egiteko (milioi bat euro ia, obraren %75) eta oraindik ez direla obrak hasi?

Ba al zenekien... Udalak 12.000 eurotik gora ordaintzen dituela hilean lokalen alokairuen truke?

Ba al zenekien... Durango sarrerako biribilgunea -Frai Juan Zumarraga/Alluitz- 2011. urterako egin behar zela?

Ba al zenekien... 2011n Durangoko aurrekontua onetsi zela sozialistekin adostuz, eta, besteak beste, Durangon aipatutako hobekuntza horiek egitea jaso zela?

Hitza eman bakarrik ez, bete egin behar da! Zurikeriarik eta adar-jotzerik ez, mesedez! Akordioak betetzen direnean esan egiten dugu, baina betetzen ez direnean ere bai. Eta egunero lan egiten dugu akordio haiek betetzeko.

Okerreko bidea hartzen denean autokritika egin behar da nahitaez, hor dago gakoa. Autokritikarik gabe nartzisismoan erortzeko arriskua dago.

## Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta  
astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN  
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

*DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*

### Laguntzaileak:



Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2012ko ekainaren 29a  
10. urtea - 465 zk.

### Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso,  
Amaia Huarte, Itxaso Altuna  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
Itsaso Esteban, Markel Onandia,  
Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzailea:** Ekaitz Goienetxea.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako,  
Juanra de la Cruz eta Zalao Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokirola

# KIROLAK >

## Ibilbide gogorra prestatu dute aurten ere Garaiko triatloirako

Domekan jokatu dute triatloia; iaz legez, *Iron man* probaren distantzia erdia izango du



Iaz Garaiko I. Triatloian parte hartu zuten triatloilari bi, igeriketa saioa amaitu berritan. Zigor Isasi

**G**ogorra eta herrikoia. Berba bi horiekin definitu ahal da domekan jokatu duten Garaiko triatloia. Iaz, lehenengo aldia amaitu zenean, parte-hartzaile askok tarteen gogortasuna azpimarratu zuten. Hala ere, aurten ibilbide berberari eustea erabaki dute. Bestalde, 50 bat triatloilari batzea itxaroten dute: "Gure helburua ez da masifikazioa. Herriko izareari eutsi gura diogu", adierazi du Jon Sarasuak, Garaiko Triatloi Taldeko kidea.

Mutrikuko Saturrarán hondartzako uretan hasiko dira igerian. Handik, Garairainoko 87

**Mutrikuko Saturrarán hondartzako uretan hasiko dira igerian**

**Iazko lehenengo aldian 50 lagun inguruk parte hartu zuten**

kilometroak bizikletan egingo dituzte. Besteak beste, Montecalvo gainetik pasatuko dira triatloilariak. Abadiñora heldu eta Garaira igo aurretik, Zaldibarrera joan-etorria egingo dute.

Azkenik, Garaiko herrigunean bizikleta utzi, arnasa apur bat hartu eta korrika osatu beharrek tarteari ekingo diote; hiru itzuli emango dizkiote zazpi kilometroko zirkuituari. Ibilbidea gogorra da, *Iron man* probaren distantzia erdia duelako, eta gorabeheratsua delako: "Garai mendi gainalde batean dago. Hemen gatxa da korrikako tarte

lauak antolatzea. Igoz gero, ostein jaitsi beharra dago eta alderantziz. Baina horrek ezagarrri bereizgarria ematen dio triatloiarri". Iaz bero handia egin zuen triatloiarren egunean, batez ere eguerdian, triatloilariak korrika ahalegin betean zebiltzanean. Horrek asko gogortu zuen berez neketsua zen ibilbidea.

**Iazko kopuru beretsua** Iazko lehenengo aldian 50 lagun inguruk parte hartu zuten eta aurten kopuru hori berdintzea itxaroten dute. Lehenengo aldi hartan Haimar Agirresarobe

gipuzkoarra eta Rakel Lombo kantabriarra izan ziren irabazleak. Oraingoaz iazko irabazleek ez dute izenik eman triatloian parte hartzeko. Hala ere, goi mailako hainbat atleta batuko dira eta pronostikoak irekita daude. Esaterako, joan zen asteburuan Salouko (Herrialde Katalanak) *Extreme Man* triatloian bigarren postuan izan zenak parte hartuko du, Josu Uriartek. *Iron man* oso baten distantzia zuen.

Urtero legez, Garaiko udal txearren alboan amaituko dute triatloia eta hantxe egingo dute sari banaketa ere. ■ J. Derteano

### TARTEAK

#### IGERIAN

**Hasi eta amaitu:** Mutrikuko Saturrarán hondartza.  
**Luzera:** 2 kilometro.

#### BIZIKLETAN

**Hasi eta amaitu:** Mutrikun hasi eta Garain amaituko da. 09:00etan hasiko da.  
**Luzera:** 87 kilometro.  
**Ibilbidea:** Mutriku, Mendexa, Lekeitio, Amoroto, Aulesti, Munitibar, Gernika-Lumo, Amorebieta-Etxano, Abadiño, Zaldibar eta Garai.

#### KORRIKA

**Hasi eta amaitu:** Garain.  
**Luzera:** 21 kilometro.  
Hiru itzuli zazpi kilometroko zirkuituari.  
**Ibilbidea:** Mendien artean izango da, baina ez mendiko bideetatik. Ibilbide osoa errepidean egingo dute.

### DATUAK

**Antolatzailea:** Garaiko Triatloi Taldea.  
**Helmuga:** Garaiko udal txearren alboan.  
**Iazko irabazleak:** Haimar Agirresarobe eta Rakel Lomb.



**Ander Azpitarte**  
Garaiko Triatloi taldeko kidea

## "Zirkuitu lauena antolatzen saiatu gara, baina, nahitaez, gogorra da"

Triatloi bat antolatzeak lan handia dakar. Ibilbideak diseinatu, lizentziak lortu, bidegurutzeak zaindu... Hamaika detaile txiki batzen dira buruhauste handi horretan. Iazko esperientzia aurten baliagarria izan zaiela onartu du.

**Iaz lehenengo aldia izan zen. Zelan irten zen?**

Oso gustura gaude iazko triatloiagaz. Lasterketa gogorra zela esan ziguten, baina antolatetaz oso pozik agertu ziren denak. Guretzat asko esan gura du horrek parte-hartzaileak pozik geratu zirelako.

**Zelan joan da aurtengo triatloiarren antolakuntza?**

Iazko esperientziak aurtengo antolatzen lagundu digu. Iaz baino finantziario txikiagoa eduki dugu dena antolatzeko, baina diruaren ordez gogoia eta ilusioa erabili ditugu.

**Izena eman dutenen artean Ingalaterrako bat dago.**

E-mail bat idatzi zigun interesa erakusteko. Distantzia erdiko triatloi bat egin nahi zuela zioen. Zarauzko triatloian parte hartzekotan zen, baina dortsal barik geratu zenez, Garaikora etorri gura zuen. Urtero egiten

omen du gutxienez triatloi bat hemen inguruan. Gurea triatloi gogorra zela esan genion, eta berak gustura probatuko zuela erantzun zigun.

**Korrikako tarte gogorra zela esan zuten parte-hartzaileek.**

Niri egokitu zait tarte diseinatzea. Garain ez dugu besterik: gora eta behera, gora eta behera. Ahalik eta zirkuiturik lauena antolatzen saiatu naiz, baina, nahitaez, gogorra da.

**Garai Triatloi Taldeari dagokionez, aurten hainbat kide nabarmendu dira.**

Aitor Astorkia eta Ekaitz Barrankua maila handian ibili dira. Aitor duatloien zirkuituko sailkapenean lider egon da zati batean. Triatloietan Ekaitzek hamargarren amaitu zuen Hondarribian, esaterako. Bata zein beste aurten oso indartsu dabilta, egia esan. Ea denboraldia zer mailatan amaitzen duten.

**Zeintzuk dira denboraldia amaitu arteko helburuak?**

Ez dugu helburu konkreturik denboraldia amaitu arte. Abuztutik aurrera beste triatloi batzuk egin eta ahalik eta mailarik onena eskaintzea da gure helburua. Eta ostean, atsedena. Duatloiak, triatloiak, mendi lasterketak... Dena ezin da eta atsedena ere hartu beharra dago.

# “Inoiz ibili barik geunden bide berriak ireki ditugu”

Sapubike elkarteak Durangoko lehenengo mountain bike martxa antolatu du domekarako. Elkarteko kidea da Iker Sagardui (Durango, 33 urte), eta bidea ezustekoa izango dela iragarri du



Iker Sagardui, martitzenean, Tabira auzoko parkean.

## Ibilbidea egituratu eta atontzea lan handia izan da?

Guk urteak daramatzagu Durangaldetik bizikletan irteten eta domekako ibilbidean inoiz ibili barik geunden bide berriak ireki ditugu. Jende asko harrituta geratuko da. Ibilbidea diseinatzek lan asko eskatu du. Azken hile bietako asteburuak horretan eman ditugu. Hain espazio mugatuan 35 kilometroko martxa antolatzea ez da erraza. Atontze lanek ere denbora eskatu dute. Aste bitan, hainbat lagun ibili dira sasi-garbitzeko makinagaz bideak garbitzen.

## Nondik ibiliko zarete?

Durangoko herrigunetik eta Azken jatetxearen albotik Mugarrako merenderora igoko gara pistatik. Handik Izurtzako neberara joango gara. Santa Agedara jaitsi ostean, berriro neberara bueltatuko gara alda-pa oso gogor batetik. Aldapa hori parte-hartzaileak probatzeko sartu dugu.

## Martxa ez lehiakorra da, baina izerdia botatzeko modukoa.

Erritmo onean irtenez gero gogorra egin daitekeen martxa da. Ibilbide bi daude aukeran eta

Erritmo onean irtenez gero gogorra egin daitekeen martxa da

bietan dago aldapa gogor hori. martxa ez lehiakorra denez, bakoitzak erabakiko du zein den komeni zaion eritmoa. Ibilbideko zatiren bat bizikletatik jaitsita egin behar bada ez da ezer gertatzen.

Hainbat ibili dira sasi-garbitze makinagaz bideak garbitzen

## Zelan sortu zen Sapubike martxa antolatzeko ideia?

Inguruko herri gehienek euren mendi bizikletako martxa dute eta Durangok ez. Taldeko kideekin egindako irteera batean sortu zen ideia eta antolatzera animatu ginen.

## Noiz sortu zenuten Sapubike taldea?

Ofizialki aurten, baina 2009an hasi ginen ibilbideak egiten. Gaur egun 32 bazkide gara eta apurka hasten gabiltza.

## Oraingoz zenbat lagunek eman dute izena martxarako?

Gutxi gorabehera 130 lagunek. Webgunearen bidez lagun gehiagok izena ematea espero genuen, baina domekan beste martxa batzuk ere badaude, Debakoak eta Eakoak, esaterako. Dena dela, egunean bertan ere apuntatu daiteke.

## Lasterketaren ostean parte-hartzaileen iritziak ere batu ahalko dituzue.

Hori da asmoa. Martxa amaieran parte-hartzaileei inkestak banatuko dizkiegu martxa zer iruditu zaien jakiteko.

## Tabirako jaien egitarauan sartu duzue martxa.

Sasoi aproposa da. Sanfaustotik ekitaldi asko daude eta eguraldiak ere ez du beti lagutzen. Urte sasoi honetan eguraldi hobea egiten du normalean.

## Baduzue beste ekitaldi berririk sortzeko asmorik?

Idea asko ditugu. San Faustotik zeozer egin gura genuke. Ea horretarako udalaren laguntza lortzen dugun. Gaueko martxak egitea eta Gabonetan zerbait antolatzea ere aipatu izan dugu. GR Mikeldi ibilbidea berreskuratzeko asmoa ere hor dago. Ideia asko ditugu, baina pausuz pausuz joan gura dugu. Lehenengo ikusi dezagun domekako lehenengo martxa zelan irteten den.

## DATUAK

**Noiz:** domekan, 09:00etan  
**Non:** Durangoko Tabira auzoan.  
**Ibilbideak:** 35 kilometrokoa eta 25 kilometrokoa  
**Izen-ematea:** egunean bertan edo webgune honetan: [www.sapubike.com](http://www.sapubike.com)

## ADITUAREN TXOKOA

Gotzon Gomez  
 Errugbi entrenatzailea



## Errugbia Olinpiar Jokoetan

Aurten ez dugu Londongo Olinpiar Jokoetan errugbia ikusteko aukera izango. Oraindik lau urte itxaron beharko ditugu, eta 7ko errugbia izango dugu 2016. urtean Rio de Janeiron.

Historia laburbilduz, XX. mendearen hasieran, Pierre de Coubertaine izan zen bultzatzaile nagusia Olinpiar Jokoetan. Bere lanari esker, 1900. urtean, Parisen, errugbia lehenengo olinpikoa izan zen. Frantzia, Alemania eta Britainia Handiak bakarrik parte hartu zuten. Baina ez zuten selekzionik aurkeztu, klubak baizik. Frantziak irabazi zuen urrezko domina.

Zortzi urte geroago, 1908. urtean, Londonek antolatutako jokoetan hiru talde besterik ez ziren aritu. Britainia Handia, Frantzia eta Australasia (Australiak eta Zeelanda Berriak osatutako taldea). Australasiak jantzi zuen urrea.

Handik hamabi urtera, Amberesen (Belgika) 1920ko jokoetan, Txekoslovakia, Errumania, Frantzia eta AEBak egon ziren. Azkenean partida bakarra jokatu zen frantziarren eta amerikarren artean. Ezustea, estatubatuarrak garaile: 8-0.

1924. urtean, berriro Parisen, Frantziak, Errumaniak eta AEBak bakarrik parte hartu zuten. Colombes estadioan 20.000 ikusleen aurrean, estatubatuarrak 17-3 menderatu zuten Frantzia. Pierre de Couberteninek Nazioarteko Batzorde Olinpikoaren presidentzia uzteaz batera, errugbiak Olinpiar Jokoetan egindako ibilbidea eten egin zen. Hainbat ahaleginen ostean, 85 urte geroago, errugbia Olinpiar Jokoetako egitarauan sartzea onartu zuten, baldintza batekin: 15ekoa barik, 7ko errugbian jokatzea. Lau urte barru izango da.

## Xabier Lujua bilbotarra erabat nagusitu da rallyan

Bizkaiko Begiratokia rallyko tarte guztietan izan zen azkarrena, eta Euskadiko lider da

lazko denboraldia amaitu moduan hasi du aurtengoa Xabier Lujua auto gidari bilbotarrak: Euskadiko Rally Txapelketako lider. Jesus Estrada kopilotuagaz eta Mitsubishi EVO X-aren bolantean, Bizkaiko Begiratokia rallyko tarte

denak irabazi zituen joan zen zapatuan eta iazko txapela berritzeko faborito nagusia dela erakutsi zuen. Aingeru eta Angel Castro aita-semeak sailkatu ziren bigarren BMW M3an. Podiuma Gorka Antxustegi eta Xabat Urrestik osatu zuten Peugeot 205agaz; Formula Libre mailako lider ipini ziren.

## Aingeru eta Angel Castro aita-semeak sailkatu ziren bigarren

Copa Abarth modalitaterako ere puntuagarria zen rallya. Maila horretan Txutxi eta Alejandro Perez anaiek irabazi zuten. ■ J. D.



Xabier Lujua eta Jesus Estrada, sari banaketan.



# Ekaineko aldapa laua eta oparoa gertatu zaio Bizkaia-Durangori

Espainiako txapelketan hiru urre lortuta borobildu du hilabetea txirrindulari taldeak



Bizkaia-Durango txirrindularitza taldearen familia argazkia.

**B**izkaia-Durango txirrindulari taldeak ekaina gorritz azpimarratuta zuen egutegian. Amaitzean dagoen hilean urteko lasterketarik garrantzitsuenak eduki dituzte; tartean, Emakumeen Bira eta Espainiako txapelketa. Lasterketa denetan erakutsitako maila ona borobildu egin zuten joan zen asteburuan Anna Sanchizek (Valentzia, 25 urte) eta Ane Santestebanek (Errenteria, 22 urte), Salamankan jokaturako Espainiako txapelketan. Sanchi-

zek urrezko bi domina lortu zituen, erlojueroan eta errepidean. Santesteban 23 urtez azpiko txapelketa izan zen errepidean. Agurtzane Elorriaga taldeko zuzendaria laudatu egin ditu: "Bagenekien oso sasoi onean zeudela eta ibilbidea ere eurentzako egokia zen, aldapak zituelako eta gorebeheratsua zelako. Hala ere, maila ikusgarria eskaini dute".

Sanchizek Espainiako Kopako lidertza ere lortu du hil honetan, Zizurkilgo lasterketa

irabazi ostean. Kopa amaitzeko lasterketa bakarra falta da. Aipagarria da Joanne Hogan australiarren lana ere: Sopelako eta Osintxuko (Bergara) lasterketak irabazi ditu ekainean.

#### Taldeka indartsu

Lorpen denak ez dira banakakoak. Besteak beste, Dorleta Eskamendi, Cristina Alcalde eta Amaia Martiedaren lanari esker, laugarren amaitu zuten Emakumeen Birako taldekako sailka-

penean. Joane Somarriba taldean zebilenetik ez zuten hain goian amaitzen.

Datorren urterako babesle bila dabil Durangoko taldea. Interesatuentzat e-mail bat ipini dute: [scdurnguesa@hotmail.com](mailto:scdurnguesa@hotmail.com).

#### Federazioaren "lan txarra"

Txirrindularitza eta emakumeetan, Espainiako selekzioa ez da Londoneko Olinpiar Jokoetarako sailkatu. Beraz, Anna Sanchizek, esaterako, ezingo du orain lau urte Beijingen izandako esperientzia errepikatu. Elorriagak Espainiako federazioaren "lan txarra" kritikatu du.

"Federazioa ez da emakumeen taldean bat ere inplikatu"

Dioenez, Londonera sailkatzeko ez dituzte puntu nahikoak batu, hein handi batean, Federazioak lasterketa gutxitan parte hartu duelako: "Federazioa ez da emakumeen taldean bat ere inplikatu. Aurrekontua gizonetan gastatu dute batez ere. Oso dezepzionaturik gaude".

Bestalde, lasterketak txarto aukeratu dituztela dio: "Lehen mailako lasterketetan onenak egoten dira eta gaur egun Espainiak duen mailagaz zaila da puntuak batzea. Zergatik ez dute parte hartu bigarren mailako lasterketa gehiagotan puntuak pilotzeko?". ■ J. D.

## Zuloa urrutitik asmatu du Barandiaranek

Joaquin Barandiaran elorriarrek marka handia lortu du Nojan (Kantabria, Espainia) jokatu den golf openean. Golf pilota lehenengo kolpean zulo batean sartzea lortu zuen. 140 metroko distantzia zegoen hasiera puntutik zulara. Openean horrelakorik lortu zuen golf jokalaririk bakarra izan zen. Horregatik, zuloa kolpe batean egin duela adierazten duen ziurtagiria jaso zuen.

Guztira 74 parte-hartzaile izan zituen Nojako golf openak eta horietako batzuk profesionalak ziren. Sailkapen orokorrean bederatzigarren geratu zen Barandiaran eta senior mailan lehenengo. ■ J. D.

## Ariznabarreta prest kilometro bertikalerako

Kilometro Bertikalen Espainiako Kopa hiru lasterketek osatzen dute. Horietako bigarrena jokatu dute zapatuan Ribagorzan (Herrialde Katalanak) eta Oier Ariznabarreta durangarrak parte hartuko du.

Gaur egun, Ariznabarreta hirugarren dago sailkapenean. Izan ere, hirugarren amaitu zuen Sabiñanigoko (Aragoi, Espainia) lehenengo kilometro bertikala. Lasterketa horretan Luis Alberto Hernandez eta Agusti Roc geratu ziren lehenengo eta bigarren, hurrenez hurren. Biharko lasterketan munduko txapelketa ere jokoa egongo da. ■ J. D.

## Trinketean, Uriarte-Antxia eta Gallastegi-Pradera txapeldun

Euskal ligako irabazleak dira, esku pilotan eta gomazko paletan

Trinketean klubaren arteko euskal ligako finalerako txapela irabazi zuten, batetik Rober Uriartek eta Ander Antxiak esku pilotan (Atxarte), eta bestetik Gaxi Gallastegi eta Itsaso Praderak gomazko paletan

(Tornosolo). Uriartek eta Antxiak latz sufrituta irabazi zuten (40-37). Gallastegi eta Pradera erosoago ibili ziren (30-18).

Bestalde, gaur Euskadiko Trinkete Txapelketa hasiko da Aba-

diñoko Tornosolon. Durangaldetik Ander Antxia, Rober Uriarte eta Mikel Gonzalezek jokatu dute txapelketa. Finalak uztailearen 14an jokatu dituzte Abadiñoko trinketean. ■ J. D.



Euskal ligako finalerako irabazleak sari banaketaren ostean.

## Erlojupeko Euskadiko txapelaren bila irtengo da Ziortza Isasi Elorrion

Txirrindulari elorriarra aurten lehenengo aldiz dabil gazteen mailan eta faboritua da

Domekan erlojupeko Euskadiko txapelketa erabakiko da Elorrion. Lau mailatan banatu dituzte txirrindulariak: kadete, gazte, 23 urtez azpiko eta elite mailak. Gazteen mailan Ziortza Isasi elorriarra irabazteko faboritua da. Aurtengoa da gazteen mailan ariko den lehenengo urtea. Iaz, kadeteetan, azpitxapeldun geratu zen. Isasi sasoi batean dago eta aurten erakustaldi handiak egin ditu pistean.

Aprilean lau domina eskuratu zituen pistako Espainiako txapelketan

Aprilean lau domina eskuratu zituen pistako Espainiako txapelketan; horietako bat urrezkoa. Maiatzean pistako Euskadiko txapelketa irabazi zuen Berrizen.

Nagusien mailan Loitek taldeko txirrindulari biren artean egon daiteke txapela lortzeko lehia: Ana Usabiaga eta Irene Usabiagaren artean. Kadeteetan ere taldekide bi dira faboritua: Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio taldeko Eider Unanue eta Olatz Agorria.

Kadeteek zortzi kilometroko ibilbidea izango dute. Atxondoko artia industriagunean emango dute buelta. Beste mailatan 15 kilometrokoa da ibilbidea eta Astolako industriagunera arte joango dira. ■ J. D.

## AISIALDIA &gt;

auzorik auzo



## Mekoleta, Otxandiora lehenengo bider argindarra eroan zuen auzoa

Pagadi ederren artean kokatuta, bizi-bizirik dagoen auzoa da Mekoleta, San Bernabe jaiek duten arrakastak garbi erakusten duenez; historian zehar ere berebiziko garrantzia izan du Otxandion

